

SAILBURUA
LA CONSEJERA**AGINDUA, 2018ko IRAILAREN 26koa, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA DEITUTAKO GREBAN ZEHAR GIPUZKOAKO HIRUGARREN ADINEKOEN EGOITZEN SEKTOREAN EMATEN DEN GIZARTEKO OINARRIZKO ZERBITZUA BERMATZEN DUENA.**

ELA sindikatuaren ordezkariak greba deitu dute 2018ko irailaren 28rako, urriaren 24, 25 eta 26rako eta azaroaren 26, 27, 28, 29 eta 30erako, adineko pertsonen zentro pribatuen sektorean (egoitzak, erkidego-etxebizitzak, eguneko zentroak, tutoretzapeko apartamentuak, eta etxetzeko laguntza-zerbitzuak, hitzarmen honen aplikazio-eremuan sartzen direnak).

Grebaren helburua honako hau da: "Gipuzkoako egoitzen sektorerako hitzarmen bat lortzea, eta, bertan, ELAk bere plataforma aldarrikatzailearen bidez Negoziazio Mahaian azaldu dituen edukiak jasotzea".

Deialdia egin duen sindikatuaren arabera, akordioan honako gai hauek jaso beharko dira, besteak beste: soldata-igoera duinak, benetako lanaldiaren murrizketa, jaiegunen konpentsazioa, kontratazioak, eta abar. Halaber, negoziazio kolektiboaren erreformen ondoren, hitzarmena aplikatzeko berme aski eskaini beharko du.

Espainiako Konstituzioaren 28.2. artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek haien interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta garrantzitsuenetako diren beste zenbait eskubide, hala nola, bizia, osotasun fisikoa eta osasuna besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako funtsezko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizarteko zerbitzu premia-zerbitzuak betetzeko neurriak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere edukirik gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da proportzionaltasunaren printzipioa zorrotasunez aplikatuz hartu behar dela funtsezko eskubideak mugatzeko edozein neurri, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu horrelako neurri batek: hori aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo "egokitasun-judizioa"; egitatea aztertuta, helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo "beharrizan-judizioa"; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzitan dauden beste ondasunetan edo balioetan eragiten diren kalteak baino, hau da, "proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta". Konstituzio Auzitegiak zenbait alditan adierazi du haren iritzia gai horren inguruan, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992 eta 126/2003.



Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizarteko oinarrizko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzeko. Hori guztia dela eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –etsi, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan– haien eskubideak grebaren bidez babesteak funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela eta, greba-deialdi honen bilakaeraren ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Gipuzkoako adineko pertsonen zentro pribatuetan egin da greba deialdi hau irailean (1 egun), urrian (3 egun) eta azaroan (5 egun), denbora-tartea utzita eta luzeegi jo gabe. Sektore honetan, izan ere, ukitutako zerbitzuen erabiltzaileen ezintasun-mailak ezartzen du beren autonomia, eta ezintasun-maila hori kasuan kasukoa da.

Horrenbestez, bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak, hots, Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak eta agintari publikoek bermatu behar dituztenak (beharrezko zerbitzuak ematen direla ziurtatuz eta prebentzio-neurriak ezarriz), behar bezala babestu behar dira, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. Konstituzioaren 10.1. artikulua araberako, pertsonen duintasuna ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarria da. Era berean, Konstituzioko 49. artikuluari jarraikiz, “Botere publikoek aitzinamendu politika bat aurrera eramango dute, baita tratamendu, berrabiltze eta elbarri fisiko, sentzorial eta psikikoen integrazioa, hauei behar duten arreta berezia eskainiz eta bereziki babestuko ditu, Titulu honek hiritargoari eskaintzen dion eskubideaz gozatzeko”. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, erkidegoari funtsezko zerbitzuak ematen zaizkiola bermatze aldera.

Orain arte esandakoarekin bat etorritik, Gipuzkoako hirugarren adinekoen zentro pribatuen sektoreko greba-deialdiari dagokionez, gobernu-agintaritzak dagozkion neurriak hartu behar ditu sektorean ematen den egoitza-arretan oinarrizko zerbitzua berma dadin, honako arau hauetan xedatzen den eran: autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan eta horrekin bat datozenetan; adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan; eta laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroeiei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan, Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki.

Horren harira, lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak “gobernu-agintaritzari” esleitzen dio greba-egoeretan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko eskumena –hala badagokio–. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak manu horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste, 11/1981 epaia, apirilaren 8koa, 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei egiten die erreferentzia aipamen horrek.

Hala eta guztiz ere, eskumen hori gauzatzeak ezin du inondik inora de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia baliogabetu ere, eskubidea gauzatu



bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura ematea ahalbidetuz; gutxieneko zerbitzuak ezartzen badira ere, horiek murriztuta egon behar dute. Horregatik, eta dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraiki, murrizketa horiek ezartzerakoan, proportzionaltasun egokiari eutsi behar zaio babestu beharreko gainerako eskubideekiko, eta murrizketa horiek ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira.

Hain zuzen ere, aipatutako araudi horri jarraiki, hirugarren adinekoentzako egoitzak eta eguneko zentroak "oinarrizko" dira, neurri handi batean, haien prestazioen onuradun diren pertsonak mendetasun-egoeran daudelako, gehienek urritasun handiak dituztelako haien osasunean eta sistemaren laguntza osoa behar dutelako autonomiari eutsi ahal izateko eta legez onartu zaizkien mendetasun-mailei dagokien arreta jasotzeko. Gainera, eguneroko bizitzako lanak gauzatzeko ere laguntza pertsonala behar izaten dute. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2 artikuluetan jasota dauden bizirako, integritate fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1 artikuluan.

Aipatutako zerbitzu horiek oinarrizkoak direla eta langileek greba egiteko eskubidea dutela kontuan hartuta, aintzat hartu behar dira honako baldintza hauek:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 25. artikuluko terminologiaren arabera, adineko pertsonentzako egoitza-harrerako eta laguntza osoko zentro bat da; etengabeko zerbitzu pertsonalak eta osasun-zerbitzuak eskaintzen ditu, eta horiek iraunkor bihur daitezke egoitza hori adineko pertsonaren ohiko egoitza bihurtzen bada. Martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako egoitza-mota hauek bereiz daitezke kategoria horretan:

Apartamentu babestuak: pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioak: gehienez ere 14 plaza dituzten elkarbizitzarako zentroak dira; euren kabuz moldatzeko ahalmen jakin bat duten pertsona nagusientzat dira eta familia-giroaren antzeko bizimodua dute.

Egoitzak: 14 plazatik gorako elkarbizitzarako zentroak dira, bizileku iraunkorra eta komuna izateko prestatuak; mendetasun-egoeran dauden pertsonen osoko zainketa etengabea ematen zaie. Minusbaliotasun handiak dituztenak zaintzeko beharrezkoak diren materialak izan beharko dituzte.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak arreta integrala eskaintzen die egunez mendetasun-egoeran dauden pertsonen, norberaren autonomia hobetzeko edo ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Araudiak honako zentro-mota hauek bereizten ditu: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikoak eskaintzen dituztenak.



3) Gipuzkoako adineko pertsonen zentro pribatuen sektorean, grebak honako zentro hauei eragingo die: eguneko zentroei, erkidego-etxebizitzei, eta erabiltzaile eta egoiliarren tutoretzapeko apartamentuei.

4) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua hiru gradutan sailkatzen du mendetasuna, eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zer arreta eman behar zaien ezartzen du gradu horien arabera. Hori horrela, "mendetasun handiko" egoeran (III. gradua) dagoen pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jardura aurrera eramateko, egunean hainbat aldiz, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala erabat galdu duenez, beste pertsona batek lagundu behar dio nahitaez eta etengabe, edo laguntza orokorra behar du autonomia pertsonalik ezaren ondorioz. "Mendetasun larria" (II. gradua) duen pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jardura aurrera eramateko, eta hori egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea, baina laguntza-premia zabalak ditu autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, maila arinago batean, "mendetasun arina" (I. gradua) duen pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jardura aurrera eramateko, eta hori gutxienez egunean behin, edo tarteka laguntza mugatua behar du, autonomia pertsonalarekin laguntzeko.

5) Egoiliarren ezintasun-mailak eta horren ondoriozko mendetasunak laguntza eta arreta integralaren eta integratuaren hainbat maila eratu ditu pertsona horien eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

6) Sektore horretan pertsonen ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozialetan. Zalantzarik gabe, greba-egoera batean, derrigorrean eman behar dira "arreta zuzeneko zerbitzu" direlakoak (osasun-arreta, erizaintza, arreta geriatrikoa, etab.), laguntza behar duten pertsonekin ondorio zuzenak dituztelako; eta, neurri txikiagoan, pertsona horiek jasotzen dituzten bestelako zerbitzuak, aurreko zerbitzuen mende daudelako, zeharka bada ere (garbiketa, garbitegia...), edo egoitza-instalazioen eta -zerbitzuen koordinazioarekin, mantentzearekin eta segurtasunarekin lotutakoekin. Eguneko zentroetan ere irizpide bera aplikatu behar da, hau da, arreta zuzena oinarrizkotzat jo behar da.

Arreta zuzenaren funtsezko izaeraren gaineko irizpide berbera aplikatu behar da eguneko zentroetan.

«Arreta zuzeneko zerbitzuak» deritzen horien barruan sartzen dira, era berean, janarien, hidratazioen eta medikamentuen prestaketa- eta hornidura-zerbitzuak, siesta terapeutikoak eta, kasuaren arabera, higiene pertsonala; zeregin horiek zerbitzuaren erabiltzaileen osasun kaltetua zaintzeko beharrezko laguntza-tratamendu integralaren parte dira, batez ere mendekotasun handia duten pertsonen kasuan. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuaren» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza ematea.

7) Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar, pertsonen jardura funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera; jardura handiagoa egoten da goizeko lehenengo orduetan (jaiak, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar). Beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar izaten da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jardura txikiagoa baita



gainerako ordu horietan.

8) Grebaren eraginpeko zentroen espazioa-konfigurazioa ere kontuan hartu behar da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, pertsona egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsoneri arriskurik sortu gabe emango direla.

9) Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, pentsa daiteke larrialdiko osasun-sistemaren bidez bermatuta geratzen dela osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta emango zaiela. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekoen eta mendetasun handikoen kasuan batez ere), sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra kronikoa izaten da, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, zainketa horiek behar dituztenen osasuna arriskuan jar daiteke.

10) Elikagaiak prestatzeko sukalde-zerbitzua izango da, baina horiek, medikuak zehatz-mehatz hala preskribatu ezean, ahalik eta modurik erraz eta sinpleenean prestatuko dira, eta erabili ondoren botatzen diren tresnak baliatuko dira, lan honetan ahalik eta denbora gutxien emateko protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuak behar bezalako higieena zaintzeko zerbitzuak dira, eta zeharkakoak izan arren, beharrezkoak dira. Bada, arlo honetan, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarritzko zereginak bete beharko dira, intentsitate baxuagoa ezarri arren.

11) Arropak garbitzeko zerbitzuan, halakorik daukaten zentroetan, arropa zuria eta zerbitzuaren berezko beste zer batzuk garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala garbitzen da. Aipatutako arropa guztitik, egoiliarrekin zuzenean lotuta dagoena da eman beharreko zerbitzuan sartuko dena, arau honen azalpenen zatian zehazten den bezala.

12) Mantentze-lanetako zerbitzuak, ezinbestekoak ez badira ere, oso lagungarriak izaten dira greba honetan gutxieneko zerbitzutzat jotako gainerako zerbitzuek eta instalazioek behar bezala funtziona dezaten. Gutxieneko zerbitzu horien funtzionamenduan eragin lezaketen balizko ezustekoei erantzun eman beharko zaie babestu behar diren gizarteko oinarritzko zerbitzuak bermatzeko.

13) Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak era askotakoak eta heterogeneoak dira; pertsonak mendetasun-maila desberdinak dituzte, eta zentroetako kudeaketa-ereduak ere desberdinak izaten dira, langile-plantilei eta koadranteei dagokienez bereziki. Hori dela eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarritzko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarritzko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten eta greba egintzat har dadin.

14) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoak ezartzen ditu gizarte-baliabide bat behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak, langileen lan-karga eta pertsona erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihestu egin daitezke greba-



egoeretan gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarrizko eskubideak bermatu egin behar dira ezinbestean.

15) Antzeko zerbaite gertatzen da menpeko pertsona nagusien eguneko zentroekin. Orokorrean, zentro horietan ohiko egoitzetan baino langile gutxiago egoten da. Horien gaineko araudia, halaber, urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan jasota dago, eta baimen-irizpideak 7. artikuluan arautzen dira, I. eranskinarekin lotuta (zehazki, 8. atalean azaltzen dira langileak).

Zentro horietarako, Madrilgo Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 zenbakiko epaiak honako hau ezartzen du: “greba-egunean itxiko balira, ez litzateke beteko dekretuak zerbitzu zehatz hauei ezartzen dien funtsezko izaera, guk ere funtsezkotzat jotzen duguna eta eguneko zentroetan eta ezintasunen bat duten pertsonen arretarako zentroetan bistakoa dena, egunean zehar adineko pertsoneri eta ezintasunen bat duten pertsoneri ematen dien arretagatik; zerbitzu hori ematen ez bada, eta greba-eguna laneguna bada, pertsona horiek nahitaez zaindu beharko lituzkete menpekotzat dituzten pertsonak, eta, beraz, pertsona horien askatasuna eta autonomia mugatu egingo litzateke ezinbesteko beste jarduera batzuk egiteko orduan, batez ere lan egin dezaten, baldin eta lanegun bati buruz ari bagara”.

Era berean, zentro hauetan funtsezko zerbitzua da menpeko pertsonen garraio-zerbitzua, zentro horietara joateko desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira bestelako garraio-bideen bitartez egin, horiek ez daudelako beren mugikortasun-gaitasunera behar beste egokituta. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan). Horren harira, gobernuko agintaritzak honek gutxieneko zerbitzuak ezarri izan ditu, portzentaje jakin bat zehaztu gabe, zerbitzua azaldu den bezala ematearen izaera “finalista” ezartzea aski iritzita.

Hala ere, horren gainean mintzatu da Autonomia Erkidego honetako Justizia Auzitegi Gorena, 2013ko irailaren 25eko epaiaren bidez, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorra deitu zenean ezarri ziren gutxieneko zerbitzuen aginduarekin lotuta. Epai horretan, Auzitegiak berak aitortzen du halako garraioak funtsezko zerbitzua direla, funtsezko zerbitzu bat izateko aukera bermatzen baitute. Horren adibide da eguneko zentroetan ematen den zerbitzua. Hala ere, Salaren ustez, xedapenak motibazioa falta du, “zerbitzuok emateko deia jaso duten langileen greba-eskubidearen mugaren proportzionaltasunari erreparatzen bazaio”.

Aipatzekoa da gobernu honek ez dituela portzentaje zehatzak ezarri izan, kontuan hartuta sektorean hainbat errealitate daudela eta zaila dela horiek guztiak ezagutzea. Hortaz, aipatutako idazkuntza nahikoa zela iritzi zen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri % 100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaike greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu



hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraiobiderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

16) Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien guztirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte esandakoarekin bat etorritik, eta guztia laburbiltze aldera, irailaren 28tik azaroaren 30era arte modu aldizkako eta tartekatuan deitutako greba gauzatzeko eskubidea baliatzea zilegi bada ere, pertsona-kopuru jakin batek lanean jardun behar du "arreta zuzeneko zerbitzuak" emateko eta oinarritzko zerbitzu horiek emateko ezinbesteko diren beste jarduera batzuk gauzatzeko. Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu gobernu-agintaritzak, auzitan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

17) Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta alor horretan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

18) Hori dela eta, Lan Harremanei buruzko Legegintzako Errege Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariari, alegazioak egin ditzaten erkidegoarentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharizanari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere. Era berean, xede bera lortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Saileko Ikuskaritza Zerbitzua jakinaren gainean jarri da.

Horregatik, alderdiek agerraldia egin zuten 2018ko irailaren 17an, Lan Arloko Agintaritzaren aurrean, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzaren bulegoetan, gobernuaren erabakiaren zioz ukitu diren langileen eta zerbitzuen gaineko beren proposamenak azaldu zituzten. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Saileko Ikuskaritza Zerbitzuak ere parte hartu zuen agerraldian.

Agerraldi hartan, gatazkan zeuden aldean posturretan desadostasunak sortu ziren zuzeneko arreta-zerbitzuak eman behar dituzten gerokultoreek edo langile baliokideek eskaini behar dituzten gutxieneko zerbitzuen portzentajearen gainean. Enpresen aldeak, Bizkaian oraintsu sektore berean egondako greben aurrekariak kontuan hartuta, honako hau eskatu zuen: langileen % 70 gehi % 10, ordutegi-tarte jakin batzuetan, eta langile gerokultoreen edo baliokideen % 80, gehi % 10, baldin eta egoitzetan II. eta III. mailako mendetasun aitortua daukaten pertsonen ehunekoa % 70etik gorakoa bada. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikuskapen Zerbitzuak, hala ere, 2013ko Gipuzkoako azken greban ezarri ziren gutxieneko zerbitzuak proposatu zituen, hau da, gerokultoreen edo baliokideen % 50 gehi langileen % 10, ordutegi-tarte jakin batzuetan.

Bestalde, ELA sindikatuak 2013an Gipuzkoan sektore honetan egindako azken greba orokorrean ezarritako joerari jarraikiz proposatu zituen gutxieneko zerbitzuak.





Kasu honetan, Gipuzkoako adineko pertsonen zentro pribatuen greba hastear da, denbora-tartea utzita eta luzeegi jo gabe, eta nahiz eta gero aparteko arrazoiak egon daitezkeen, eta, horien ondorioz, administrazio-izapide egokiak egin ondoren, beharrezkoa izan daitekeen ezartzen diren gutxieneko zerbitzuak aldatzea, honako hau aplikatu behar da: gerokultoreen edo langile baliokideen kasuan, arreta zuzena ematen duten horien % 50, jatorduen ohiko ordutegian izan ezik, hots, goizeko 08:00ak eta 10:30ak bitartean eta iluntzeko 20:00ak eta 22:00ak bitartean, kasu horietan zerbitzua % 10 handituko baita.

Halaber, konfuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2018ko uztailaren 18ko epaian egindako adierazpena. Izan ere, egun baterako deitutako greba orokorrerako honako hau ezarri zuen, adineko pertsonen egoitzen kasuan: arreta zuzena ematen duten gerokultoreen edo horien langile baliokideen % 50, gobernuko agintaritzak gutxieneko zerbitzuak ezartzen zituen aginduan ezarritako % 70aren partez.

Apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren (Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenaren) 3.1. artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean autonomia-erkidegoko ezinbesteko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa jasota, honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- 1. Gipuzkoako Hirugarren Adinekoen egoitza pribatuetan irailaren 28, urriaren 24, 25 eta 26 eta azaroaren 26, 27, 28, 29 eta 30erako deitutako greban langileek haien greba-eskubidea erabil badezakete ere, arreta zuzeneko zerbitzuak bermatu egin beharko dira, horiek gutxieneko zerbitzutzat jotzen direlako, bai eta pertsona egoiliarren bizitza eta osasuna, haien beharren arabera, bermatzen dituzten zerbitzuak ere. Beraz, ohetik jaikiarazi eta oheratzeko behar diren zerbitzuak (jarrera-aldaketak eta abar barne hartuta) eman beharko dira, bai eta osasun-asistentzia ematekoak (botikak, sendaketak...) eta higiene pertsonalarekin, elikatzearrekin eta botikak ematearekin lotutakoak ere. Oinarrizko arreta zuzeneko zerbitzuak ere gutxieneko zerbitzutzat jotzen dira.

2. Jarraian aipatzen diren langileek eta zehaztutako moduan egin beharko dituzte jarduera horiek:



2.1. Oro har.

2.1.1 Portzentajea kalkulatzeko:

- a) 1 baino txikiagoa bada, pertsona bat gehiago gehitu beharko da gutxieneko zerbitzuetako langileen kopurura.
- b) Eraitza pertsona 1 baino gehiago baina 2 baino gutxiago bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.1.2. Artikulu honetan gutxienez hartutako zerbitzurik ez duten zentroetan edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko gainerako zerbitzuei edo arretari.

2.1.3. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak egotea; horrela bada, agindu honetan finkatutako ehunekoak eta ratioak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraiki erabakiko da nork bete behar dituen "bat datozen" gutxieneko zerbitzuak: lehenengo, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

2.1.4. Medikuek bestelako agindu berezi eta zehatzik eman ez badu behintzat, elikagaiak prestatzeko eta egoiliarrei emateko lana ahalik eta modu sinpleenean eta errazenean egingo da, hau da, erabili eta botatzeko elementuak erabiliko dira eta ahalik eta denbora gutxienez eskatzen duten protokoloak edo metodologiak jarraituko lanak egiterakoan, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi duten ahalik eta langile gehienek eskubide hori baliatu ahal izan dezaten. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.5. Lehenetsuna izango dute mendetasuna duten pertsonen higie pertsonalarekin eta horiei botika edo elikagai terapeutikoak ematearekin lotutako lanak –betiere, medikuek aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude–, horiek ez egiteak arrisku larria ekar dezake. Halaber, higie pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da beti greba-aldian zehar.

2.1.6. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan baino ez dira egingo garbiketa-lanak. Horretarako, Laneko eta/edo Osasuneko Arriskuen Prebentzioan jasotako xedapenak eta protokoloak izango dira erreferentziatzeko irizpide.

2.1.7 Garbategian lan hauek baino ez dira egingo, eta hurrenkera honetan: lehenik, egoiliarren azpiko arropa garbitu eta lehortzea, eta, bigarrenik, arropa zapala garbitu eta lehortzea (maindireak, burkoak eta eskuoihalak).



2.2. Egoitzak:

Egoitzetan, arreta zuzena gauzaten duten gerokultoreen edo parekatuen % 50 izango da lanean, bazkariaren ohiko ordutegian eta 08:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara izan ezik, orduan % 10 gehituko baita.

Gaueko txandan, arreta zuzeneko langileen % 100ek lan egin beharko du, baina "arreta zuzeneko" zerbitzutzat jotako lanak baino ez dituzte egingo.

2.3. Eguneko zentroak:

Asteburukoak ez diren greba-egunetan, eguneko zentroetan zuzeneko arretako zerbitzuak eman beharko dira eta zuzeneko arreta hori ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 50 egongo da, baina gosaltzeko eta bazkaltzeko orduan ehuneko hori % 10 igoko da. Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

2.4. Etxebizitza komunitarioak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekatuen % 50 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori % 10 igoko baita. Gaueko txandan, arreta zuzeneko langileen % 100ak lan egin beharko du, baina «arreta zuzeneko» moduan zehaztutako lanak baino ez dituzte egingo.

2.5. Pertsonal sanitarioa:

OLT/EUDen % 50ek lan egingo du.

2.6. Sukaldeko langileak:

Langileen % 50ek lan egingo du. Grebak irauten duen artean, elikagaiak prestatzeko lanak soilik egingo dituzte sukaldeko langileek.

2.7. Garbitzaileak:

Langileen % 20k lan egingo du. Grebak irauten duen artean, agindu honen 2.1.6. idatz-zatian aipatutako garbiketako lanak baino ez dituzte egingo langileek.

2.8. Arropa-garbitegiko langileak:

Normalean lan horretan betetzen den lanaldiaren % 20ko zerbitzua emango da, agindu honen 2.1.7. atalean deskribatzen diren zereginak egiteko.

2.9. Mantentze-lanetako langileak:

Mantentze-lanetarako, jaiegunetan egoten den langile-kopuru bera egongo da, eta pertsonen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria eragin dezaketen premiazko eta atzeraezinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.



BIGARRENA.- 1. Agindu honen 2.1.3. idatz-zatian ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da zer langilek bete behar dituzten zerbitzu horiek.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, enpresako zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak, eta langile horiek zer eginkizun bete behar dituzten adieraziko. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan eta indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira. 24 ordu lehenago jakinaraziko diote sindikatu-ordezkaritzari nork bete behar dituen eginkizun horiek.

HIRUGARRENA.- Agindu honen aurreko idatz-zatietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kanpokotzat joko dira, eta haien eragin dituzten langileak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.


LAUGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedaturikoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak ez dira inolaz ere murriztuko, ezta grebarako deia eragin duten eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

BOSGARRENA.- Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.

SEIGARRENA.- Ebazpen honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak) xedaturikoaren arabera..

Era berean, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: Agindu honen aurka aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkez daiteke Lan Administrazioko Agintaritzan, Agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko irailaren 26an.



MARIA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LOPEZ
CONSEJERA DE TRABAJO Y JUSTICIA